

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3170

177/2017 DEKRETUA, ekainaren 20koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak kargutik kentzeko eta beste batzuk izendatzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa; lege horren 7.1 artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua aipatutako erakundearen gobernu-organo goren da.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren; estatutu horien 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Administrazio Kontseilua honako kide hauek osatuko dute:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- b) Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi kontseilukide, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen ordezkari izango diren bost kontseilukide. Aipatutako sindikatuek aukeratuko dituzte bost kontseilukide horiek, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresaburuen elkarteen ordezkari izango diren bost kontseilukide. Aipatutako elkarteek aukeratuko dituzte bost kontseilukide horiek, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011ko abenduaren 12ko EHAA, 233. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu ziren, betiere hura arautzen duen legean agindutakoarekin bat.

Horren ostean, beste zenbait berriztapen egin dira Lanbideren Administrazio Kontseilua osatzen duten kideen artean, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren ordezkari bai Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen eta enpresaburuen elkarteen ordezkari.

Gaur egun, Lan eta Justizia Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretua indarrean jarri ostean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren kideak berritzeko proposamena egin da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren ordezkari izan eta sail horri dagozkion kideak, hain zuzen.

Halaber, jaso egin dira Euskal Enpresarien Konfederakuntza-Confebaskek eta Euskadiko Langile Komisionen Konfederazio Sindikalak egindako zenbait jakinarazpen, 2017ko maiatzaren 24an eta 2017ko ekainaren 13an, hurrenez hurren; horien bidez, jakitera eman dute zer aldaketa egon den lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko ordezkarien artean; beraz, behar diren kargu-gabetzeak eta izendapenak egin behar dira.

2017ko ekainaren 23a, ostirala

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2017ko ekainaren 14an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hauek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkariak zirenak, orain arte betetzen zituzten karguetatik kentzea:

Maria Elena Pérez Barredo, kide titularra, eta Joaquín Díaz Arsuaga, ordezeko kidea.

2. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hauek izendatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa:

Juan Ramón Azkue Manterola, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea, kide titularra; eta Elena Pérez Barredo, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria, ordezeko kidea.

3. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluan enpresaburuen elkarteetan ordezkari izan dauden kide hauek kargutik kentzea, Euskal Enpresarien Konfederakuntza-Confedebaskek proposatuta:

José Miguel Ayerza Mendiburu, kide titularra; eta Nerea Zamacola Gárate, ordezeko kidea.

4. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluan enpresaburuen elkarteetan ordezkari izango duten kide hauek izendatzea, Euskal Enpresarien Konfederakuntza-Confedebaskek proposatuta:

Nerea Zamacola Gárate, kide titularra; eta Mikel Sarriegi Etxeberria, ordezeko kidea.

5. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hau, sindikatuen ordezkaria, Euskadiko Langile Komisionen Konfederazio Sindikalak (CCOO) izendatua, orain arte betetzen zuen kargutik kentzea:

María Dolores García García, kide titularra.

6. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluan sindikatuen ordezkaria izango den kide hau izendatzea, Euskadiko Langile Komisionen Konfederazio Sindikalak (CCOO) proposatuta:

María Cruz Vicente Peralta, kide titularra.

7. artikulua.– Dekretu honek onesten den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 20a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.